

# eleketa



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE

ERAKUSKETA ■ EXPOSITION



Amikuzeko mediatekan, Donapaleun  
Médiathèque d'Amikuze, à Saint-Palais

## Amikuztarrak mintzo Témoignages d'Amikuze

2009ko azaroaren 18tik  
2010eko urtarrilaren 16era

### Prentsa-txostena

Ordutegia  
horaires d'ouverture :

Asteazkena / mercredi  
9h00 • 12h30  
& 14h00 • 19h00

Ostirala / vendredi  
14h00 • 19h00

Larunbata / samedi  
9h00 • 13h00



www.  
**eleketa**  
.com

## «Eleketa» erakusketa: Amikuztarrak mintzo

Euskal kultur erakundeak 2007an abiatu lekukotasun bilketa handia Amikuzetik hasi zen. Bi urtez, hogeita hamar amikuztar baino gehiago grabatuak izan dira (ikus zerrenda ondoko orrian).

Lekukoen hautaketa egina izan da Zabalik elkartearen (Manex gogoan) laguntza estimagarriari esker.

Lekukoek Amikuzeko gai berezi batzu aipatzen dituzte (etxetiargoa, feriak eta merkatuak, zaldi lasterketak, zuraren lana, formakuntza eta laborantzako garapena) beste gai orokorren artean (elizaren urratsak, jakinduriak, ofizioak).

**2009ko azaroaren 18tik 2010eko urtarrilaren 16era zatozte lekukotasun horien entzutera eta ikustera Amikuzeko mediatekara (Donapaleu).**

### **Ordutegia:**

Asteazkena : 9:00 • 12:30 / 14:00 • 19:00

Ostirala : 14:00 • 19:00

Larunbata : 9:00 • 13:00

[www.eleketa.com](http://www.eleketa.com)

## Eleketa programa : zer da ?

### 1- Ahozko ondarearen bilketa eta balorazioa

Ondarea, jendarte baten nortasuna osatzen eta jendarte hori besteetatik bereizten duten osagai material eta inmaterial guzietan osatua da. Eleketa programa, ahozko ondarean oinarritzen da (bizipenen eta jakitateen kontaketa, kantuak eta elezaharrak...) : hunen biltzea, artxibatzea eta hedatzea du helburua. Lekukotasunak euskaraz bilduak dira.

Nafarroako erakundeek proposaturik (Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Euskokultur fundazio pribatua) eta Baxe Nabarreko PCD-aren, Kontseilu Orokorren, Akitania Eskualdeko Kontseiluaren diru laguntzekin, ahozko memoriaren bilketa 2007an abiatzen da Baxe Nabarren, Iparralde guziari hedatzeko asmoarekin.

Hastapenetik, Euskal kultur erakundeak bilketa eta artxibatze metodologia zehatz bat alhan ezartzen du. Metodologia honen lehen urratsa aholku batzorde baten sortzea da, tokian tokiko lekukoen eta gai garrantzitsuen identifikatzeko. Lekukotasunak numerizatuak, sekuentziantan zatituak eta tratatuak dira Baionako Artxibategian (besteak beste) entzuteko eta ikusteko gisan. Metodologia honek baliagarria izan nahi du Baxe Nabarren eta ipar Euskal Herri guzian.

2009an, Kontseilu orokorrak hartzen du lanaren jabetasuna, Euskal kultur erakunde lanaren ekoizlea dagoelarik.

Lekukotasun horiek eskoletako haurrei eta publiko zabalarari ezagutarazteko, hainbat ekintza eramaten ditu Euskal kultur erakundeak. Eleketa erakusketa ekintza hauetarik bat da.

### 2- Bilketa programa urtez urte

#### **2007- Bilketaren abiatzea Amikuzen**

EKE-k Amikuzetik abiatzen du Baxe Nabarreko memorioaren bilketa.

10 presuna grabatuak eta filmatuak dira 2007ko abuztua eta abendua bitartean : Donapaleuko (Marie Oxarango, Kattin Harisgarat, Kattina Etcheverry, Ttote Ainciboure, Marie-Jeanne Auchoberry), Gabadiko (Alexandre eta Pantxika Bordagaray, Albert Dubois), Garrüzeko (Isidora Claveranne) eta Martxuetako (Léon Tissier).

Bildutakoa numerizatua da, sekuentziantan zatitua, tratatua eta Euskokultur fundazioari bidalia.

Honek bere datu-basean sartzen du eta Nafarroako Unibertsitate Publikoari helarazten, navarchivo.com bere webgune berezian integra dezan. Kopia bat atxikia da Aldudarrak Bideo (operazioaren partaide teknikoa) elkartearen egoitzan eta Euskal kultur erakundeak.

Bestalde, 2007ko bukaeran, departamenduko artxibo zerbitzuak bilketa hori bere ikus-entzunezko artxiboetan sartzeko xedea jakinarazten du, Baionako artxibategiaren bitartez.

## 2008 - Bilketa Amikuzen, Garazi eta Baigorri aldean

19 inkesta egiten ditu Euskal kultur erakundeak Donapaleuko eta Garazi-Baigorriko kantonamenduetan :

- **Donapaleuko kantonamenduan:**  
Michel Mendibil (Gabadi), Noël eta Kattalin Lacoste (Ilharre), Jeanne Alchourroun, Georgette Errecart (Arberatze-Zilhekoa), Marie-Jeanne Auchoberry eta Jeanne Doxaran (Donapaleu), Jeanne Arcondéguy (Lohitzüne-Oihergi), Dominique Etchegaray (Domintxaine), Gérard Sabarots (Oragarre), Jean-Marie Larroque (Arboti-Zohota), eta Joana Davant (Urrüstoi-Larrabile).
- **Donibane Garaziko kantonamenduan:**  
Guillaume Irigaray (Ahatsa), Michel Curutchet eta Michel Tihista (Ezterenzubi), Beñat Urruty (Mendibe), Jean-Baptiste Barberena (Zaro), Flontxa Harispe eta Beñardo Indart (Uharte-Garazi).
- **Baigorriko kantonamenduan:**  
Marie-Jeanne Minaberry (sortzez Bankarra).

*Oharra : 2008an, helburu nagusia da Amikuzeko bilketaren bururatzea. Baina hain xuxen urte honetan berean, Garaziko Sindikatak eta Aezkoako Juntak (Leader proiektuaren barnean) Baxe-Nafarroako bilketaren partaide diren Euskal kultur erakundeak, Euskokultur fondazioari eta Aldudarrak Bideori galdegiten diete filma bat egin dezaten memoria kolektiboaren biltzeko Garazi eta Aezkoa haranetako mugazgaineko harremanetaz. Horra zergatik 6 bideo grabatzen diren Donibane Garaziko kantonamenduan. Baigorriko kantonamenduko grabaketa ere beste proiektu berezi bati lotua da.*

- **Elkarrizketa bakoitzaren informazioen tratamendua**  
Departamenduko artxibo zerbitzuak bilketaren mamia bere ikus-entzunezko fondoan sartzeko nahikeria erakutsi duenez, elkarrizketa bakoitzaren informazio orokorrak eta sekuentziei lotu emaitzak (kodigoa, izenburua eta bilduma)Excel(Nafarroa Garaiko erakundeentzat) eta Arkhéia (departamenduko artxiboentzat) logizielen bidez tratatuak dira.

- **Balorapen pedagogikoa**

"Biharko etnologoak" proiektua abiarazten du EKE-k 2008-2009 ikasturtean, Donapaleuko lehen mailako eskoletan eta kolegio pribatuan, haurrek beren baitarik ikus eta ikas dezaten zer den bilketa lan baten egitea. Egitasmo hau 2009ko ekainean bururatu da.

## 2009 – Bilketa hedatzen da Xiberoan eta Lapurdin barna

Aukera berri batzuetaz baliatu nahian, Baxe Nabarreko mugak gainditzen ditu bilketak 2009an.

- **Donapaleuko kantonamenduan :**  
Bilketa beti aberastuz doa. Hamaika pertsona berri elkarrizketatuak dira : Jean-Pierre Lapouble (Arberatz-Zilhekoa), André Narbaitz (Arrueta), Maddi Auvray, Odette eta Katti Lucu (Bithirina), Jean-Claude Mailharin (Amenduze), Jean Urruspil eta Dorotheé Mailharin (Donapaleu), Pascal Biscay, Pettan eta Germaine Dufau (Behauze), Xeñan Belleau (Garrüze) eta Frantxoa Belleau (Amorotze-Zokotze).
- **Iholdiko kantonamenduan :**  
Tokiko aholku batzorde berri bati esker (Pierra Laco, Mañex Molimos, Lucien Ruspil eta Mañex Olçomendik osatua), lekuko andana bat begistatzen ditu EKE-k. Horietarik bi elkarrizketatzen ditu : Pierre Salles (Izura) eta Piarre Petoteguy (Jutsi).  
Bestalde, Irissarriko Herriko Etxeak galdeginik, 6 pertsonen lekukotasunak biltzen ditu herri hortan, 2010ean segitzeko asmoarekin : Beñat Etcheverry "Fitero", Marie-Jeanne Otharan, Aña Idieder, Henri eta Mathilde Haran, Jeanne Etchegoinberry eta Marie Dagorret.
- **Garazi-Baigorriko kantonamenduetan :**  
Kantonamendu hauetan segitzen du Euskal kultur erakundeak, lau pertsona elkarrizketatuz : Bettiri Argain eta Antoinette Lekumberry (Ortzaize), Fanny Arrabit (Bidarra) eta Martial Inchauspé (Donibane-Garazi).
- **Xiberoan**  
Philippe Etchegoyhen xiberotar semeak aholkaturik, Iratin dagoen Lakarriko Johaño Etchebarne artzaina elkarrizketatua da Arrazolatze bere olhan.
- **Lapurdin :**  
Itsasuko Herriko Etxeak, 2008ko bukaeran, bere kabuz bildu 10 elkarrizketen mamiaz interesatua agertzen da EKE. Herriko Etxearekin adosturik, Xabier Itçaina CNRS-eko ikerlariak (Aldudarrak Bideorekin) egin grabaketa horiek muntatzen eta tratatzen ditu bere fondoan sarrarazteko. Elkarrizketatuak hauxe dira : Dominika Aguerre, Mayi Poulou, Pascal Paris, Dominica Heguy, Janette Elissetche, Simone Larronde, Jeanne eta Manex Olhagaray, Gratien Larronde, Paul Harispourou eta Norberto Aguerre.

Bestalde, Ahetzen daraman beste egitasmo bati esker, bi ahezta filmatzen ditu EKE-k : Germaine Pouyal eta Kattin Miranda.

Horiek guziak kondutan hartuz, Euskal kultur erakundeak 36 lekukotasun berri egin ditu eta tratatu 2009an, 65etara iganaraziz grabatu lekukoaren kopuru orokorra.

# eleketa Amikuze

## Lekukoak | Témoins

**Maddi Oxarango,**  
Donapaleu / Saint-Palais,  
etxeoanderea / femme au foyer (1907)



**Kattin Harisgarat,**  
Donapaleu / Saint-Palais,  
laborarisa / agricultrice (1913)



**Totte Ainciboure,**  
Donapaleu / Saint-Palais,  
gereñozaina / éleveur d'étalons (1912)



**Kattina Etcheverry,**  
Donapaleu / Saint-Palais,  
bizikleta konpontzailea / réparatrice de cycles  
(1925)



**Alexandre & Pantxika Bordagaray,**  
Gabadi / Gabat, arotza eta  
etxeoanderea / forgeron et femme au foyer  
(1935 & 1938)



**Léon Tissier,**  
Martxueta / Masparraute, laborantza  
munduko garraiolaria / entrepreneur agricole  
(1924)



**Albert Dubois,**  
Gabadi / Gabat,  
zurgina / menuisier-charpentier (1932)



**Isidora Claveranne,**  
Garrüze / Garris,  
ostalertsia eta sukaldaria / restauratrice (1926)



**Marie-Jeanne Auchoberry,**  
Donapaleu / Saint-Palais,  
ostalertsia eta sukaldaria / restauratrice (1934)



**Jeanne Arcondeguy,**  
Lohitzüne-Oihergi / Lohitzun-Oyhercq,  
aguardiant egilea / bouilleur de crû (1923)



**Jeanne Alchourroun,**  
Arberatze-Zilhekoa / Arbérats-Silègue,  
laborarisa / agricultrice (1921)



**Jeanne Doxaran,**  
Donapaleu / Saint-Palais,  
dendaria / couturière (1921)



**Michel Mendibil,**  
Gabadi / Gabat,  
laboraria / agriculteur (1938)



**Noël & Kattalin Lacoste,**  
Ihare, arotza eta postako korespondtsala  
forgeron et correspondante postale  
(1920 & 1925)



**Georgette Errecart,**  
Arberatze-Zilhekoa / Arbérats-Silègue,  
laborarisa / exploitante agricole (1937)



**Dominique Etchegaray,**  
Dominbaine-Berueta / Domezan-Beraute,  
laboraria / agriculteur (1930)



**Gérard Sabarots,**  
Oraganne / Orègue,  
segalaria eta orga egilea / scieur de long  
et charon (1920)



**Joana Davant,**  
Umüstoi-Larrabile / Arrast-Larrebieu,  
etxeoanderea / femme au foyer (1932)



**Jean-Pierre Lapouble,**  
Arberatze-Zilhekoa / Arbérats-Silègue,  
ospitaleko langilea / agent hospitalier (1946)



**André Narbaits,**  
Amueta-Samkota / Arraute-Charitte,  
aguardiant egilea eta garraiolaria /  
bouilleur de crû et transporteur (1934)



**Maddi Auvray,**  
Bithiriña / Beyrie-sur-Joyeuse,  
erientsa / institutrice (1929)



**Odette & Katti Lucu,**  
Bithiriña / Beyrie-sur-Joyeuse,  
laborarisa / agricultrices (1925 & 1933)



**Jean-Claude Mailharin,**  
Amendüze-Uhaso / Amendoux-Oneix,  
Baionako merkatal garbarako langilea eta  
Amenduzako oiharenen jabea / responsable PME à la  
CCI de Bayonne et propriétaire d'un moulin (1953)



**Jean Urruspil,**  
Donapaleu / Saint-Palais,  
piatuna eta musikaria / facteur et musicien  
(1923)



**Dorothee Mailharin,**  
Donapaleu / Saint-Palais,  
laborarisa / agricultrice (1931)



**Paxkal Biscay,**  
Behauze / Bèguicos,  
laboraria / agriculteur (1923)



**Xéñan Belleau,**  
Garrüze / Garris,  
zurgina / menuisier-charpentier (1929)



**Pettan & Germaine Dufau,**  
Behauze / Bèguicos,  
laborariak / agriculteurs (1925 & 1942)



**Frantxoa Belleau,**  
Amorotze-Zokotze / Amorots-Succos,  
laboraria / agriculteur (1922)



**Jean-Marie Larroque,**  
Arboti-Zohota / Arbouet-Sussaute,  
laboraria / agriculteur (1938)

1

Lehen urratsa: Amikuzen bildu lekukotasunen erakusketa Donapaleuko mediatekan 2009ko azaroaren 18tik 2010eko urtarrilaren 16ra



2

Bigarren urratsa: erakusketa sarean [www.eleketa.com](http://www.eleketa.com) 2009ko abenduaren 21etik goiti

**Amikuztarrak mintzo erakusketa**

Hiru ukipen-pantailatan ezarria den aplikazio elebidun baten bidez Amikuzen bildu lekukotasunen hautaketa bat ikusgai:

- 30 lekuko
- 72 bideo-zati gaika sailkatuak

Argazki-erakusketa batek osatzen du aurkezpen multimedia hori.



**eleketa**  
Collecte de la mémoire en Pays Basque nord

Les métiers  
Travaux et savoir-faire  
Rites de passage  
La vie au village  
Regards sur la société  
Les évènements importants

Maddi Auvray, Beyrie-sur-Joyeuse, (1929) 04:55

**Institutrice**  
Maddi Auvray avait un attachement particulier pour les enfants de la campagne, bien qu'elle ait eu du mal à leur apprendre le français. Au cours de sa carrière d'institutrice, elle a également enseigné à Bayonne. Ici, les élèves n'étaient pas bascophones, c'était bien avant la démocratisation des cours en basque. Selon elle, le plus important pour un écolier, c'est qu'il sache bien lire et qu'il

**eleketa.ORG** Euskal Kulturaren ataria

Arkeologia  
Arkitekturea  
Naturaren ondarea  
Ondare heriketa

**1914-1918ko gerla**

**Maddi Oxarango**  
(Donapaleu, 1907)

Marie (Maddi deitua) Oxarango Donostiran sortua da 1907an. Lau haurdideetarik zaharrena. Zazpi urte zibuenan 1914-1918ko gerla jn zen eta arreba tipiaz arduratu behar izan zuen; horregatik arunt gutxi ibili da eskolan. Sehi egon da zortzi urtez eskolatu arte. Artetik josten ere ikasi du. Heritar bakain eskolatu da 1931an (24 urte zituen). Bost urtez elgarrekin lan egin du Leizorako Jauregian; senarra auto gidaria zen, Maddi besteak beste sukaldaria. Ondotik Donapaleura ...

**Laburpena**  
Maddi Oxarango ezagutu du munduko lehen gerla: 7 urte zituen, aita eta osaba joan zitzaizkion gerlara. Oroitzen da bere aita luzaz ez ikusirik. Maddik eskola utzi zuen bere ahizpa tipiaz arduratzeko: 8 urtetan jadanik, etxeko lanetan parte hartzen zuen, beste emazteak bezala.

**Gai honi lotu argazkiak:**  
Alexandre Bordagaray-k eman argazkiak

"Amikuztarrak mintzo" erakusketan agertzen diren bideo-zati guztiak ikusgai baita ere:

- 30 lekuko biografiak (elebidunak)
- Bideoen laburpena (elebidunak)
- Lekukoek eman argazkiak
- Bilketa sistema (gaika, herriko, lekukoaren arabera, gako-hitzen arabera...)